



2024

# **TOLOSAKO BERDINTASUN BEHATOKIA: SAN JOANAK 2024**

SAN JOANEN ANALISIA

# AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA .....	
2.	KOKAPEN HISTORIKOA ETA 2024KO LANAK .....	
3.	LAN PROZEDURA .....	
4.	NOLA IRAKURRI DOKUMENTUA.....	
5.	KOMUNIKAZIOA .....	
6.	EGITARUA.....	1
6.1	Sarrera .....	1
6.2	Txupinazoa .....	1
6.4	Musika-ikuskizunak .....	1
6.6	Kirolak.....	2
7.	INDARKERIA MATXISTA .....	2
8.	BALORAZIO OROKORRA .....	3
9.	GEHIGARRIAK .....	3

## 1. AURKEZPENA

Dokumentu honetan **2024. urtean Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren analisia** azaltzen da. Aurreko urteetako lanketari jarraituz, San Joan jaien esparru anitzen genero-azterketa egin da, eman diren aurrerapauseoi balioa emanez eta erronkak mahaigaineratuz.

Udal-teknikari eta ordezkari politikoei zuzendutako dokumentua da, eta bereziki jaien lanketan eta Behatokiarekin harreman zuzena dutenei: Alkatetza, Jaiak, Kultura, Kirola, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoak, Musika Eskola eta Komunikazio alorretako zinegotziak eta teknikariak. Ondoren, hemendik ateratako ondorioak<sup>1</sup> jaietan parte hartzen duten elkarteei, herri eragileei, eta oro har, herritarrei ere jakinarazten zaizkie; alde batetik, udal-webgunean Berdintasunak duen atalean txostena zintzilikatuta, eta bestetik, horren berri emanez.

Dokumentu honetan, Behatokiaren lana bi norabidetan erakusten da: batetik, dagoeneko Tolosako Udalak berdintasunaren alde egiten duen lanari balioa ematen zaio, eta bestetik, lanketa honetan sakontzeko esku-hartze proposamenak azaltzen dira, ikuspegi estrategiko eta praktiko batetik, baita irizpideak ere. Gainera, hartzaile izango diren departamentuetako teknikariak eta politikariak sentsibilizatzeko bokazioa ere badu: gure jaietan emakumeek eta gizonek duten parte-hartzearen inguruan oraindik ematen diren diskriminazio egoerak ezagutzeko, horien inguruan kontzientzia hartzeko eta neurriak hartzeko gaitasun gehiago izan dezaten.

Dokumentu honek ondorengo egitura du: lehendabizi, Behatokiaren inguruko kokapen historiko bat egiten da, azken urteetan izan duen eboluzioa azalduz; ondoren, lan-prozedura azaltzen da; Behatokiak aztertutako lau esparruak lantzen dira jarraian (komunikazioa, antolakuntza, egitaraua eta indarkeria sexista); eta azkenik, etorkizunera begira eman beharreko urratsak azaltzen dira, ondorio orokor moduan.

---

<sup>1</sup>Txosten hau eta orain arte egindakoak Tolosako Udalaren web orrian daude:  
<https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/berdintasuna/programa-eta-proiektuak/jaiak-behatokia-eta-gida/jaiak-behatokia>

## 2. KOKAPEN HISTORIKOA ETA 2024KO LANAK

Tolosako Udalak 2010 urtetik darama jaietan berdintasun-ikuspegia txertatzen era aktibo batean. Urteetako prozesuari jarraipena eta egonkortasuna emateko asmoz, 2016. urtean, Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia diseinatu zen Berdintasun Departamentuaren lidergoarekin. Behatokiaren helburua berdintasun-politikak modu estrategiko, sistematizatu eta eraginkorrean aplikatzeko tresna izatea da, jaiak berdinzaleagoak izan daitezen. Helburu honetan udaleko hainbat udal-departamentuk parte hartzen dute neurri eta modu oso ezberdinetan.

Ez dugu ahaztu behar Behatokia epe luzeko ikuspegian, hobekuntza iraunkorrean eta progresibotasunean (funtzioak, eragile partaideak, lanketa esparruak eta jaiak hazten joango dira) oinarritzen dela. Ideia hau azpimarratu behar dugu, hain zuzen ere, Behatokia udalarentzat eta herriarentzat tresna "bizia" bezala ulertu behar delako hau da momentuan momentuko jaietara eta Tolosar jendartera egokitu behar dena.

2017. urtean, Behatokia lehen aldiz martxan jarri zen. Urte horretan, diseinatutako eredua eta tresnen frogia egitea planteatu zen, eta hemendik ateratako ikaspenetan oinarrituta, beharrezko hobekuntzak egin ahal izan ziren. Ondorioz, 2017an San Joan jaietan egindako lanketarekin Txosten bat egin zen.

2018an aurreko urteko ikaspenetan oinarrituta Behatokiak lanean jarraitu zuen, eta beste esparru batzuetara ireki zuen bere lanketa eta eragin markoa; hau da, Behatokia jaietako kirol-jarduerak txertatu zituen bere analisian, baita Larramendiko jaiak ere.

2019an, COVIDaren ondorioz, Behatokiak urte horretan San Joan jaiak aztertu beharrean (ez ziren jaiak ospatu), Inauteriak aztertu zituen (horiek bai ospatu ziren). Beraz, lehenbiziko aldiz, Behatokiko analisisetan Inauteriak txertatu ziren. Pandemiaren iraupena eta eragina zirela eta, hurrengo bi urteetan ez ziren jaiak ospatu, eta Behatokiak jai berdinzaleetarako lehen plana osatu zuen 2020-2021ean; planak barne biltzen zituen 2021-2024 arteko ekintzak.

2022 urtean, berriz normaltasunez ospatu ziren San Joanak, eta Behatokiak haiei zegokien analisi lanari ekin ahal izan zion. Lehen aldiz, dokumentuan aurreko urteetako datuekin alderaketa bat egin zen, berdintasunaren esparruan ematen ari den eboluzioa ikusgarri egin ahal izateko.

2023 eta 2024. urteetan, analisi konparatuari ekiteaz gain momentuko argazkia ateratzen jarraitu du.

### Behatokiaren beste lanak 2024an zehar

Behatokia San Joanak, Inauteriak eta Larramendiko jaien azterketa eta neurketa egiteaz gain beste eremu batzuk jorratzen ditu Tolosako jaiak ikuspegi feministatik berdinzaleagoak izan daitezen. Hau dela eta 2024an zehar Behatokiak honako gaietan lanean aritu da:

- Behatokiaren plangintza
  - Behatokiaren urteko plangintza adostea Berdintasuna eta Jaietako arloekin.
- Babarrun festa
  - Babarrun festaren genero analisisan oinarrituta Babarrun lehiaketan berdintasuna bultzatzeko irizpideen implementazioa.

- Tresnen diseinua eta sozializazioa
  - Herriko gaueko ostalaritzarentzako indarkeria matxistaren kontrako protokoloa eta sozializazioa diseinatu.
- Jaietako azterketak
  - Inauteriak
  - San Joanak
  - Larramendi
- Beste eragileekin koordinazioa
  - Larramendi auzo elkarteak
  - Musika eskola
  - Gure Kaiola
  - Kabi Alai
- Jabekuntza eskolarekin elkarlana
  - Emakumeen txaranga

### 3. LAN PROZEDURA

*Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren Oinarri dokumentuan* horren funtzionamendu eredua eta tresnak azaltzen dira, eta horietatik abiatuta, beharrezko egokitzapenekin, 2024. urteko lanketa egin da. Bost faseko prozesua izan da.

Hauexek dira 5 faseak eta bakoitzean egindako lanketa:

- **Plangintza.** Lehendabiziko fase honetan, 2024ko San Joan jaietan aztertuko zenaren aurreikuspena egin zen.
- **Informazioa jaso.** Alde batetik, udal departamentuei beharrezkoa zen dokumentazioa eskatu zitzaizen (aktak, jardueretako partaideen zerrendak, egitaraua, diru-laguntzen fitxak...). Udal-arloez gain, herriko hainbat eragilerekin bildu edo hitz egiten da beharrezkoa balitz haien esku dagoen informazioa eta jakintza eskuratzeko.
- **Analisia.** Informazio guztia eskuratu ondoren, analisia egin da.
- **Komunikazioa.** Ateratako emaitzak, udal-teknikari eta zinegotzi guztiak gonbidatzen diren sentsibilizazio-saio batean azaltzen dira. Azkenik, Berdintasun Departamentuko web-orrian herritar guztien eskura jartzen da.
- **Balorazioa.** Urtea edo beharraren arabera parte hartzen duten departamentuekin elkarrizketa bat egiten da jaien inguruan duten balorazioa ezagutzeko eta berdintasunean eman daitezkeen urratsak sakonago identifikatu ahal izateko.

Lanketa hau guztia Berdintasun Departamentuaren eta Behatokiaren arteko elkarlanean egiten da.

## 4. NOLA IRAKURRI DOKUMENTUA

Txosten honek oso banaketa sinplea eta intuitiboa izateko eraikia da. Landutako gai bakoitzak atal bat osatzen du, guztira 4 atal nagusi: Komunikazioa, Egitaraua eta Indarkeria. Egitarauan, beste 3 gai biltzen dira: Txupinazoa, Musika eta Kirolak.

Beraz, honela litzateke eskema:

1. Komunikazioa
2. Egitaraua
  - Txupinazoa
  - Musika
  - Kirolak
3. Indarkeria

Atal bakoitzean egin den azterketa jasotzen da eta, ondoren, balorazio txiki bat jasotzen da. Jarraian eta atala ixteko, lehenbiziko aldiz, adierazle batzuk jarri dira.

Amaitzeko, balorazio orokorraren atala dago.

## 5. KOMUNIKAZIOA

### 5.1 Sarrera

Komunikazioak berebiziko garrantzia du jaien inguruan transmititzen den irudian. Irudi hori jaien inguruan dugun ikuskerak baldintzatuko du, eta era berean, **neurri kontzienterik jarri ezean, emakumeen eta gizonen artean ematen diren desberdintasunak erreproduzituko dira.** Irudi, mezu eta hizkuntza berdinzaleak eta eraldatzaileak erabiltzean, ordea, ikuskera berriak sortzen dira, eta horiek eragin zuzena dute jaiak bizitzeko izango dugun eran.

Atal honetan analisi dokumentala egin da, testu eta irudien azterketa, alegia. Kartela, egitaraua, prentsa oharrak eta udalaren agerraldi publikoak aztertu dira, baita Twitter, Facebook eta udal-webgunea ere.

### 5.2 Kartela

Kartela **jaien inguruko irudi grafiko nagusia da, eta jaien erreferente bisual bihurtzen da.** Kartelaren aukeraketaren atzean jaien inguruan eman nahi den irudia dago, eta horregatik, berdintasuna bermatzea beharrezkoa da.

Urtero bezala, kartel lehiaketarako oinarrietan berdintasuna bermatzeko irizpideak jasotzen dira. Hona hemen jasotzen dena:

*11.-Generoen irudikapenean erabilitako irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez. Modu honetan, egileei argi uzten zaie parte hartzeko haien lanek berdintasun-irizpideak bete behar dituztela.*



Modu honetan, egileei argi uzten zaie parte hartzeko haien lanek berdintasun-irizpideak bete behar dituztela. Ondorioz, ziurtatzen da irabaziko duen kartela ez dela sexista izango.

2024ko kartel lehiaketa **Ane Elizegi Agirrek irabazi du “Emakumeak bordondantzari”** kartelarekin. Iaz, bezala irabazlea lehiaketa bitartez egin da eta Anek beste 36 lanekin lehiatu behar izan du. Aurten, berritasun bezala, Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuak izendatutako epaimahaiaren botoei Jai Batzordearena ere gehitu zaie.



Kartel honek, **aldarri eta omenaldi argia egiten dio emakumeak jaietan parte hartzeari**, kartelean protagonista den Miren Nazabal Urruzola bordondantzaria inguratzen, bordondantzarien arkuak irudikatuz honako esaldia irakurri daiteke *“Sei emakume Bordondantzari aritu ziren estreinekoz 2013ko San Joan egunean. 2022an lehenbizikoz emakume bat izan zen dantzarien kapitain, Miren Nazabal Urruzola. Erreferente eta mugarri zarete, tradizioa eraldatu eta datozenei bidea irekitzeagatik”*.

Honetaz gain, kartelak aukera eman du Miren Nazabal Urruzolaren inguruan eta Bordondantzan emakumeen sarreraren eta ibilbidearen berri eman duen erreportaia egiteko, ondorioz jaiekin lotutako emakumeen irudia eremu publikora ateratzeko parada eman du.

Lehiaketa eta sari honi begirada longitudinala txertatu ezkerreko, Behatokiaren azterketak hasi zirenetik 3 gizonezko izan dira irabazleak, behin emakumezko bat eta 2 aldiz bikote misto bat<sup>2</sup>.

		EMAKUMEA	GIZONA	TALDE MISTOA
2024	Ane Elizegi Agirre	x		
2023	Angel Blanco Egoskozabal		x	
2022	Enrique Diaz Nuñez		x	
2019	Alvaro Limousin		x	
2018	Irene Elizegi eta Xabier Isasti			x
2017	Irene Elizegi eta Xabier Isasti			x
<b>GUZTIRA</b>		<b>1</b>	<b>3</b>	<b>2</b>

<sup>2</sup>Sexu-izendapenak izeneisuposatzen zaien genero-markan oinarritu dira.

### 5.3 Egitarauaren eskuorria

Liburuxka eta eskuorria sortzeko azpikontratatzan den enpresari jaietako arduradun teknikoak irizpideak ematen dizkio; ondoren, egindako lanari, irizpideak oinarritzat hartuta, oniritzia edo egokitze aholkua ematen dira. Oniritzi horretarako, Berdintasun Departamentuaren laguntza du; hau da, Berdintasun Departamentuak argazkiak eta testuak gainbegiratzen ditu, eta gomendioak ematen ditu aldaketak egiteko irudi eta eduki ez-sexista eta ez-homofoboa bermatzen dela ziurtatzeko.

Eskuorrian, azkenengo urteetan bezalaxe, **iruditegi eta hizkuntza ez-sexistaren alde egin den lana goraipatu** behar da. Agerikoa da **genero ikuspegia integratuta** dagoela eta iruditegia asko zaindu da. Zalantzarik gabe, euskarri honekin **berdintasuna bultzatzen duen errelatoa gero eta sendoagoa da**. Ondorioz, lan honetan hartutako norabideak **genero esteriotipoak eta berdintasunaren aldeko diskurtsoak artikulatzen laguntzen da**.



Gaur egungo gizartean, komunikazioak eta irudiak gero eta garrantzia handiago du eta honetan bizitzaren beste alorretan bezala begirada maskulinoa nagusitu da, berez, jaien iruditegia begirada honetatik egin izan ohi da. Joera honekin, gizonezkoa sujetu eta narrazioaren gidaria bihurtzen da, beraz mundua gizonezkoen imaginario horretatik eraikia izaten da. Baina, narrazio honetan genero ikuspegia txertatzen denean, errelatoa aldatzen da eta herrian ematen diren aldaketei laguntzen dio berdintasunaren aldeko narratiba berriak eraikitzen.

Eskuorrian, erraldoietan aritzen diren emakumezkoak agertzen dira, kaleak eta oholtzak betetzen dituzten emakume musikariak, emakume gazte harrijasotzaileak, suari salto egiten dion neskatxoa, eskopetari emakumeak, etabar. Hau da, genero mandatoa transgreditzen dituzten emakumezkoak ageri dira. Horretaz gain, mandato horrekin lotuagoak dauden ekintzak burutzen ere agertzen dira, nolabait jaietan ekintza hauek lehen planora ekarriz. Beste urteetan

bezala, aurten ere genero agerian uzten ez dituzten irudiak (eskuak, oinak...) daude, agerian utziz genero ikuspegia binarismotik haratago doan gauza bat dela eta horretan ere bidea egiteko euskarria dela eskuorria. Azpimarratu behar da, ere gizonak bere mandatotik at dauden ekintzetan ageri direla, hala nola, dantzan edo haurren zaintzan. Gai honi zeozer gehitze aldera, irudietan emakumezkoen aniztasuna gehiago lortzea interesantea litzateke, hala nola, emakume helduak, razioalizatuak edo aniztasun funtzionalarekin, eta gizonezkoen kasuan bere generoari ebazten ez zaizkien ekintzetan agertzea adibidez, pertsona helduak zaintzen, euskal dantzetatik haratago dauden dantzak dantzatzeko, afektua adierazten, etabar.

Bestetik, liburuxkak **Joka Sano. Ondo pasa, pasa gabe!!!** kanpaina jaso du. Horretaz gain ere, **Gogoan Izan atalean ere erasorik gabeko jaiari erreferentzia egiten zaio.**

### gogoan izan

**Ongi etorri Tolosara, gozatu Sanjonean.**  
Bienvenido/a a Tolosa a disfrutar de los Sanjones.

**Jai estaiak eta gogotsuak nahi ditugu.**  
Queremos unas fiestas donde prime la alegría y la diversión

**Izan jarrera arduratsua alkoholarekin.**  
Actitud responsable con el alcohol.

**Parte hartu eta ondo pasatu, baina errespetuz.**  
Participa y disfruta, pero con respeto.

**Sanjonean ere birziklatu, berrerabili eta sortu zabor gutxiago.**  
En sanjones también recicla, reutiliza y reduce la basura.

**Tolosak EZETZI DIO indarkeria sexistaren aurrean. JOKA SANO. Ondo pasa, pasa gabe. #LIBRENonahi.**  
Tolosa ¡NO! ante la violencia machista. JOKA SANO. Diviértete, no te pases.

**Edozein arazo bada, Tolosako delitu Tolosako Udaltzaingorekin telefonora (24 orduko arreta zerbitzu): 943 67 58 58.**  
Ante cualquier problema llama al teléfono de la Policía Municipal de Tolosa (Asistencia 24 horas): 943 67 58 58.

**Ez ostopatu garbiketako lanak.**  
No obstaculizar el trabajo del servicio de limpieza.

**Erebili komun publikoak.**  
Utiliza los baños públicos.

## ERASORIK GABEKO JAIEN ALDE, JARRERA AKTIBOA IZAN!

POR UNAS FIESTAS LIBRES DE AGRESIONES SEXISTAS, ¡ACTÚA!

### GUNE MOREA

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GUNEA  
Espacio libre de violencia machista

Ekainak  
Junio

## 22-23-24

24:00 / 05:00

#LIBRENonahi

**JOKA SANO**  
Ondo pasa, pasa gabe!!!

**943 675 858**

Tolosako Udaltzaingoa  
24 orduko arreta zerbitzua  
Policía Municipal de Tolosa  
Asistencia 24 horas

TOLOSA BAIEZAGARRA


### aurre kontua

MUSIKA EMANALDIAK. Gazteak, eguneak	70.500 €
GANONITZEKOAK Dultzaineroak, bearrangak, bandaren kontzertua	24.300 €
BESTE IKUSKIZUNAK. Su artifizialak, sagardo dastatzea, bertsoariak, herri kirolak, dantza-ikuskitzak	22.500 €
HAUR MUSIKIZUNAK. Parfesa, zebenbiak, Haurren Hiria...	8.500 €
ESKOPETARIAK. Dnuisguntas, segunak, sartak	24.000 €
KOADDILA EGUINA. Emanaldiak, karpak	13.900 €
ARGITALPENAK, PUBLIZITATEA. Kartel lehiaketak, erreportajeak	3.900 €
GASTU OROKORRAK Komunak, elektrizitate lanak, garraiokak, loreak, soluziotapenak	35.316 €
<b>Gutira</b>	<b>202.716 €</b>

### 5.4 Udal hedabideak eta sare sozialak

Tolosako Udalean **sistematizatuta dago prentsa oharretan, sare sozialetan eta hedabideei eskura ematen zaien informazioan genero ikuspegia txertatzea** eta jaietan berdintasun- alorrean ematen diren aurrerapausoei garrantzia nabarmentzea.

**Udaleko web-orrian eta sare sozialetan**, bestalde, egindako jardueren jarraipena egin zen, eta uneoro, **hizkuntza eta iruditegi ez sexista erabili ziren eta gizon eta emakumeen irudi parekidea izan zen**. Horrez gain, gainerako komunikazio-euskarrietan gertatu bezala, emakumeen irudiak ikusarazteko saiakera egin da **eta indarkeria matxistaren kontra egiten diren kanpainen berri emateko baliatu da**.



### 5.5 Udaleko agerraldiak

#### San Joanen berri emateko agerraldia

Urtero bezala, aurten ere, San Jonak iragartzeko agerraldi publikoa egin da. Bertan udal ordezkarietaz gain, herriko hainbat eragile elkartu ziren. **Udalak**, duela urte batzuk hona, publikoki egiten dituen agerraldietan, hala nola, San Joanetako jaien berri emateko, **irudi berdinzalea edo parekidea bermatzen du**. Hau da, maila honetan, genero berdintasunaren aldeko jarrera erakusteko oso garrantzitsua da ordezkarietan emakumeak egotea.

Aurtengo agerraldian 12 lagunek parte hartu zuten, horietatik, 7 emakume eta 5 gizon.



*Iturria: TolosaldekoAtaria*

**Azken urteetan bezala, irudi berdinzalea eman zen.** Jaietako aurkezpena momentu garrantzitsua izaten da, oihartzuna izaten duena eta udalaren jarrera erakusteko balio duena. Beraz, aurkezpen honetan gizonak eta emakumeak egoteak eta emakumeek leku zentralak izateak berebiziko garrantzia dute.

Bestalde, jaietako kartela eta egitarauaz gain, **“Erasorik gabeko jaien alde, jarrera aktiboa izan!” kanpainari lotutako irudiak ere aurkeztu ziren.** Horrez gain, prentsaurrekoan Kultura eta Berdintasun zinegotziak “Festa baketsu, alai eta parte hartzaileak bizi nahi ditugu Tolosan, beste leku guztietan bezalaxe, errespetuan eta berdintasunean oinarrituta”. Halaber, indarkeria matxistaren kontrako kanpainaren berri ere eman zuen, eta Gune Morearen inguruko zehaztasunak azaldu zituen. Horretaz gain, Behatokia eta Berdintasun sailaren artean lantzen ari den ostalarientzako indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloaren berri eman zuen.

Horrekin guztiarekin, agerian gelditzen da Tolosako udalak jaien esparruan berdintasunaren alde egiten den lana **balioan jarri eta plazaratzeko ahalegina** egiten duela, horretarako udalaren esku dauden baliabideak erabiliz.

## 5.6 Balorazioa

### Orokorrean

Komunikazioan **berdintasun ikuspegia txertatzeko lana egin da**, Jai Berdinzaleen aldeko Behatokia sortu denetik gai honetan **aurrerapauso esanguratsuak eman dira** eta Behatokitik urtez urte egindako **gomendioak aintzakotzat hartu direla baieztatu daiteke**. Momentu honetan, gaiarekiko kontzientzia dago eta urtez urte praktika onak errepikatzen doaz eta komunikazioan dabilzan pertsonen egunerokotasunean txertatuta daudela ikusten da. Bestetik,

udaletik tresna ezberdinak sortu dira berdintasuna bermatzeko, hala nola, kartel lehiaketarako berdintasun oinarriak, azpikontratatura dagoen komunikazio enpresari irizpideak pasatzen zaizkio edota liburuxkaren iruditegia eta hiztegia errebisatzeko elkarlana Berdintasuna eta Jaien artean.

Gai honetaneman diren aurrerapausoei eutsiz, aurrera begira jarri gaitzke eta urrats esanguratsu gehiago eman jai feministen aldesortzen eta sendotzen ari den narratiban.

Ondoren, gai honen inguruan kontutan hartu daitezkeen adierazle batzuk azaltzen dira.

**Balorazioa Berdintasun adierazleen bitartez**

Alor hau amaitzeko berdintasun adierazleak erabiliko dira, nolabait modu honetan ikusi ahalko dugu gairen egoera eta modu simple batean neurtu ere.

Kartel lehiaketarako irizpideak

Lehiaketak bere oinarrietan berdintasun ikuspegia txertatuta du	GUTXI	ERABAT
Kartela aukeratzeko epaimahaiak berdintasun irizpide argiak ditu	GUTXI	ERABAT
Lehiaketan emakume sortzaileen parte hartzea bultzatzeko neurriak aurreikusten dira	GUTXI	ERABAT
Kartel irabazlearen lanketa komunikatiboan genero ikuspegia txertatu da	GUTXI	ERABAT

Egitarauaren eskuorria, udal web-ari eta sare sozialei dagokionez hauek dira adierazleak<sup>3</sup>

Hizkuntza eta iruditegi ez sexista erabiltzen da	GUTXI	ERABAT
Emakumeen genero estereotipoak gainditzeko irudiak agertzea kontutan hartzen da	GUTXI	ERABAT

Emakumeen aniztasuna irudikatzea kontutan hartzen da	GUTXI	ERABAT
Gizonezkoen genero estereotipoak gainditzeko irudiak agertzea kontutan hartzen da	GUTXI	ERABAT
Binarismoa gainditzeko irudiak agertzea kontutan hartzen da	GUTXI	ERABAT
Berdintasun aldarriak transmititzen dituzten irudiak agertzea kontutan hartzen da	GUTXI	ERABAT
Indarkeria matxistaren kontrako kanpaina agertzea kontutan hartzen da	GUTXI	ERABAT
<u>Jaiak iragartzeko agerraldi publikoari dagokionez</u>		
Irudi parekidea edo berdinzalea transmititzen da	GUTXI	ERABAT
Hitzartzea parekidea edo berdinzalea da	GUTXI	ERABAT
Jai berdinzaleen aldeko mezua ematen da	GUTXI	ERABAT
Behatokiaren berri ematen da	GUTXI	ERABAT

## 6. EGITARUA

### 6.1 Sarrera

Jaietan zer programatzen dugun genero ikuspegitik aztertzea oinarritzkoa da Behatokiarentzako; izan ere, zer-nolako jaiak egiten ditugun erakustez gain, zer-nolako jaiak nahiko genituzkeen galdetzea planteatzen digu. 2024. urteko San Joan jaietako **txupinazoa**, **musika** eta **kirol-ekintzak** aztertu dira.

### 6.2 Txupinazoa

Txupinazoa jaietako momentu gorenetakoa bat izan ohi da, eta **ohorezko ekintza moduan kategorizatzen da**, herriak sinbolikoki herrikide bat/talde bat omentzen duelako horrek egindako lanagatik. **2018. urteaz geroztik, txupinazoa nork botako duen aukeratzeko berdintasun-irizpideak ere hartzen dira kontuan**, eta jai bileren oniritzia jaso behar du.

2024. urteari dagokionez **Aiora Zulaika "Pirritx"-ek txupinazoa** botatzeko ardura izan du. Bere alboan balkoian 15 haur pailazoz jantzita eta Katxiporretako hainbat lagun egon dira eta Maite Zaitut abesti egokitua abestu dute, seinu hizkuntzaz lagunduta.

Berdintasun-ikuspegitik, ondorengo analisia egin dezakegu: Balkoian **irudi berdinzalea eman da**, omendua emakumezkoa izan da eta bere ondoan egondako guztiak ere emakumeak izan dira. Mezuari dagokionez, Behatokiak ez du izan bere hitzartze osoa beraz, hedabideetan agertutakoaz gain izan izan du azterketan sakondu.



Ilustración 1: IrudiakAtariatikateradira

Ikusleei dagokienez, ehunka lagun bildu ziren. Gehienak nerabeak, gazteak eta haurrak helduekin izan ziren. Jarrera aktiboa eta alaiak izan zuten, jai giroan ohikoa den moduan.

Txupinazoa amaitutakoan, **erraldoiak eta buruhandiak sartu ziren plazara**, ohikoa den moduan. Erraldoiak **3 gizon-emakume bikote dira**, eta bikoteka dantza egiten dute, bikote eredu heterosexuala irudikatuz. Buruhandiak gizonak irudikatzen dituzte, eta gehienetan gizonetzkoak izaten dira rol hau betetzen duten gazteak. Dultzaineroak gizonak izan ziren.

### Aurreko urteekin alderatuz

Dagoeneko, 2018ko San Joanen ostean, adostu zen bezala, Txupinazoa botako duen pertsonaren edo eragilearen aukeraketarako **irizpide** batzuk indarrean daude.

Dagoen zor historikoa orekatzeko helburuarekin urtero emakumeak txupinazoa botatzeak izango du lehentasuna (zorra orekatu arte, behintzat). Hori bermatzerik ez badago, ondorengo irizpideek izango dute lehentasuna beren hurrenkeraren arabera:

1. Talde edo kolektibo mistoa izatea.
2. Bi generoak bermatuta egotea; hau da, txupinazoa bi elkarte edo kolektibok botatzea adibidez gimnasia erritmikoko taldea (denak neskak dira) eta txistulariak (denak gizonezkoak dira)
3. Alterno positiboa. Hau da, aurreko irizpideak bermatu ezin badira, eta gizon talde edo kolektibo batek botako balu txupina, hurrengo 2 urteetan emakumezko talde edo kolektibo batek bota beharko luke.

Txupina gizonezkoek osatutako talde edo kolektibo batek botako balu, berdintasunari keinu bat egitea eskatuko zaio: hala nola, indarkeriaren kontrako bandera bat edo pegatinak eramatea; hitza hartuz gero, berdintasunaren aldeko mezuak botatzea...

Beraz, **irizpide horiekin parekidetasuna eta berdintasuna bermatzen dela ziurtatuko litzateke.**

Irizpideak indarrean daudenetik hauek izan dira txupinazoa bota dituztenak:

- 2024an, Aiora Zulaika, "Pirritx".
- 2023an, Gainditzen elkarte, Julian Rodriguez ordezkariaren bitartez.
- 2022an, Katixa Perea, Ballet irakaslea.
- 2019an, Udal Txistularien Banda.

## 6.3 Balorazioa

### Orokorrean

Txupinazoa aztertzea jaietako eremu oso esanguratsuan fokua jartzea suposatzen du. Dagoeneko **txupinazoan berdintasuna bermatzeko tresna diseinatu, adostu eta aplikatzen da.** Horrek jaietan eragina izan duela ezin da ukatu; hala ere, **urtez urte eraginkortasun-maila mantentzen dela eta hutsuneei aurre egiteko berriak integratzen direla bermatu behar da.**

### Balorazioa Berdintasun adierazleen bitartez

Alor hau amaitzeko berdintasun adierazleak erabiliko dira, nolabait modu honetan ikusi ahalko dugu gairen egoera eta modu simple batean neurtu ere.

#### Programazioan

Txupinazoa aukeratzeko udal irizpideen tresna erabili da

GUTXI

ERABAT

GUTXI

ERABAT

Txupinazoa aukeratzeko udal irizpideen tresnaren helburuak lortu dira	
Txupinazoa aukeratzeko udal irizpideen tresna ebaluatu da eta egokitzapenak egin dira	GUTXI ERABAT
Txupinazoa aukeratzeko udal irizpideen tresna jaietako eragileek eta herritarrek ezagutzen dute	GUTXI ERABAT
Txupinazoan berdintasuna eta indarkeriaren kontrako aipua egin dira	GUTXI ERABAT


## 6.4 Musika-ikuskizunak

San Joan jaietan, musika-estilo anitzak programatzen dira, adina desberdinei eta gustu zabalei zuzenduta. Tolosako tradizioari jarraiki, kontzertuak, kale-musika eta txarangek zein musika tradizionalak presentzia nabarmena dute.

**2024. urteko San Joanetan 27 musika emanaldi egon dira**, eta 504 musikaririk jo dute. Hauek izan dira azterketa honetarako oinarri moduan hartu ditugunak; izan ere, analisi kuantitatibo bat egin dugu, musika-talde horietako kideen sexuari erreparatu. Analisiarekin hasi aurretik, kontaketa egiteko orduan kontuan hartu ditugun irizpide batzuk aipatu nahiko ginituzke:

- Musika emanaldiak kontabilizatu ditugu, eta ez talde kopuruak; izan ere, talde batzuek behin baino gehiagotan jo dute, eta programazioan duten lekua ikusgarri egiteko, jarduera bakoitza kontatu dugu.
- Datuak ez dira erabat zehatzak, batez ere talde handien kasuan. Batzuetan, zaila izan da kideen kopuru zehatza lortzea, eta gutxi gorabeherako estimazio bat egin dugu. Hala ere, ez dugu uste honek ikuspegi orokorrean eragin nabarmenik duenik.
- Bakarlarien kasuan, bakarlaria kontatu dugu, kontuan hartu gabe bandan jotzen duten kideen kopurua.
- Sexuari erreparatu diogu esteriotipoetan oinarrituz, hau da, musikari bakoitzari ez diogu galdetu ze genero identitateari atxikitzen den. Hala ere, emanaldiren batean sexu-genero esteriotipoetara egokitzen ez diren musikariak egon diren kasuetan, sexu-genero transgresoretzat identifikatu ditugu.

Musika ikuskizun horien genero-analisiarekin hasteko, ikuskizun guztietan parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopuru totala alderatu dugu. Esan bezala, **504 musikaririk hartu zuten parte guztira, eta horietatik, 190 emakumezkoak izan ziren (% 38), 313 gizonezkoak (% 62) eta 1 sexu-genero transgresorea (%0). Datuak parekideak ez izan arren oso gertu gelditu dira.**



Ondorengo taulan azken urteetako eboluzioa ikus daiteke datu zehatzekin.

2024			2023		2022		2019		2018	
Emakum	Gizonak	transgresoreak	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakum	gizona
%38	%62	%9	% 40	% 60	% 36	% 64	% 28	% 72	% 36	% 64


Izan ere, 2018. urtean musika emanaldietan emakumeen presentzia handitzeko, udalak musika-taldeak kontratatzeko irizpideak ezarri zituen eta horrela dio:

- 1) Kontratatuko diren musikarien artean gutxienez % 36 emakumezkoak izango dira.
  - a) Igotzen den heinean, aurreko urteko gutxienezko ehunekoa (%) hurrengo urteko minimo bezala onartuko da.
  - b) Urtez urte gutxienezko ehunekoa (%) igotzeko ahalegina egingo da % 50era heldu arte.

Honen aurrean, datuak ez dira guztiz baikorrak baina gutxienez irizpide minimoak mantentzen dira, hau da, emakumeak gutxienez %36a izatea. Aldiz, beste bi irizpideak ez dira lortu, hau da, 2023ko datuak erreferentzia bezala izatea eta urtez urte ehunekoa igotzea, nahiz eta pasadan urtean baino emakume musikari gehiago egon datu osoetan. Oстера, lehenbiziko urtez sexu-genero transgreditzen duen musikari bat programatu da:djFulana.Nahiz eta ez zenbakitu emakumeen presentzia areagotzeko prozesuan, oso positibotzat ikusten da genero ikuspegitik, hain zuzen ere, gizartean markatuta ditugun genero arauak gaintu dituelako. Beraz, behatokiaren ikuspegitik horrelako ereduak gero eta presentegoak izan beharko ziren jaietan.

Musikarien sexuaz gain, musika taldeen izaeraren inguruko azterketa ere egin dugu, sexuaren araberrako osieran arreta jarritz. Atal honetan, lau kategoria bereizi ditugu: talde mistoak, emakumez osatutakoak, gizonez osatutakoak, sexu-genero transgresoreak osatuak. Ondorengo grafikoan ikusten den bezala, **taldeen erdiak mistoak ziren (% 50, 14 talde),**

**emakumez eta gizonez osatuta baitzeuden.** Ondoren, gizonez osatutako taldeak egongo lirateke (% 39, 11 talde), jarraian eta alde handiarekin, emakumez soilik osatutakoak (% 7, 2 talde) eta sexu-genero transgreditzen zituzten taldeak azkenik (%4, 1 talde).



2024. urtean 2023ko tendentzia mantendu da etaurreko urteetan baino musika emanaldi gutxiago programatu direla azpimarratu behar da. Izan ere, azken urteetako **joera mantendu da gizonezkoen bakarrik osatutako taldeei eta talde mistoei dagokionez**, aldiz, **emakumezkoen soilik osatutako taldeen inguruan, 2018tik 4 talde programatzen ziren, berriz aurten 2 programatu dira** (Batumore batukada feminista eta Dudik-p). Berritasun oso baikor bezala sexu-genero transgreditzen zuen talde bat programatu dela esan behar da.

	2024		2023		2022		2019		2018	
	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa
Emakumez bakarrik osatutako taldeak	% 7	2	% 15	4	% 8	4	% 10	4	% 8	4
Gizonez bakarrik osatutako taldeak	% 39	11	% 37	10	% 34	16	% 27	11	% 34	16
Talde mistoak	% 50	14	% 48	13	% 58	25	% 63	26	% 58	28
Sexu-genero transgresorez osatutakoa	%4	1	-	-	-	-	-	-	-	-


Beraz, **joera gauza batzuetan mantendu da eta beste gauza batzuetan aldaketak izan ditu.**

Jaietako kontratazio-irizpideetan “**urtero emakumez bakarrik osatutako taldeen ehuneko handitzea**” jaso zen, **aurten hau ez da bete**, baina bai ikusi ahal izan dela **aldaketa bat** DjFulanaren kontratazioarekin, hau da, **sexu-genero transgreditzen duten musikariak programatzea**. Talde mistoak jarraitzen dute gehiengo izaten, baina honen inguruko analisi zehatzagoa egin behar da mistotasun horren “kalitatea” ikusteko.

Emakumez eta gizonaz osatutako taldeei dagokienez, **talde misto moduan izendatu ditugu, baina horien artean ere berezitasunak daude**. 2007ko martxoaren 22ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lege Organikoan oinarritu gara eta horrela definitu ditugu talde mistoak:

- **Talde mistoa, orekatua:** partaideak sexuen arabera banatuta jartzean, bi sexuen kopuruak partaide guztien % 60 eta % 40 bitartean kokatzen badira.
- **Talde mistoa, feminizatua:** % 60tik gora neskek badira.
- **Talde mistoa, maskulinizatua:** % 60tik gora mutilak badira.

Agerikoa da talde mistoen artean, **gehiengo zabala (% 64) talde maskulinizatuak** direla, bigarren maila batean, **orekatuak (%36)**, eta **feminizatuak ordea, %0** da.




Azken urteen arteko konparazioa egiten badugu, **talde misto maskulinizatuennagutasuna** oraindik nabarmena da, hala ere, 2018tik hona **programatutako talde kopurua asko jaitsi da**. Talde misto feminizaturik ez dago eta hau **atzerapausu bat da 2023rekin konparatuz**. Ohera, **talde misto orekatuei dagokienez, aurreko urteetako gorako joera mantendu da**.

2024		2023		2022		2019		2018	
%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa

Misto OREKATUA	%36	5	% 31	4	% 20	5	% 15	4	% 18	5
Misto FEMINIZATUA	%0	0	% 15	2	% 0	0	% 0	0	% 7	2
Misto MASKULINIZATUA	%64	9	% 54	7	% 80	20	% 85	22	% 75	21

Musika ekitaldien esparruan, **gauetan programatzen diren ikuskizun eta kontzertuek garrantzia berezia** dute. Oso jendetsuak izan ohi dira, eta aurrekontuen ehuneko handiak ere bideratzen dira ikuskizun horietara. 2024. urteari dagokionez, **mutilez osatutako taldeak (% 41) dira nagusi, ondoren talde misto maskulinizatuak (% 33)**, maila askoz apalago batean daude **misto orekatuak (%19)**, **azkenik emakumez osatutakoak (%7)** eta **misto feminizatuak (%0)**.



Taldeen osaketaren datuak bere osotasunean hartu ezker, eta azkenengo 5 urteen alderaketa egiten bada, orokorrean gauza batzuk mantentzen direla ikus daiteke, hala nola, azkenengo bi urteetan emakumez bakarrik osatutako taldeak programatu direla, baina, **emakumeen presentzia oholta gainean, konparatiboki, ez du joera argi bat, momentuaren araberako argazki bat da.** Hau da, ez dago igoera edo jeitsiera joerarik, urte batean lortzen dena ez du adierazten hurrengo urtean errepikatu edo hobetu ahalko denik, dirudienez urteko abagunearen arabera da.

	2024		2023		2022		2019		2018	
	Datua	%	Datua	%	Datua	%	Datua	%	Datua	%
Emakumez osatutako taldeak	2	%7	2	%9	1	%5	1	%6	0	%0

<b>Gizonez osatutako taldeak</b>		11	%41	5	%24	10	%48	7	%43	10	%43
<b>Mistoak</b>	<b>Feminizatuak</b>	0	%0	2	%9	0	%0	0	%0	2	%8
	<b>Orekatua</b>	5	%19	4	%19	2	%9	0	%0	3	%34
	<b>Maskulinizatua</b>	9	%33	8	%38	8	%38	8	%50	8	%13

### Aurrekontua

**Musika** aurrekontuari dagokionez, jaietako **aurrekontu altuena** eramaten duen atala izaten da. 2024. urtean, jaietako aurrekontu osoa 202.716 euro izan zen, eta kopuru horretatik, musika emanaldiek 70.500 euroko aurrekontua izan zuten, aurrekontu osoaren % 34 bideratzen da musika emanaldietara.

Musikarien artean, desberdintasun handiak daude beraien lanagatik kobratzen duten diruaren inguruan, batzuek eta besteek duten katxetari lotuta batez ere. Normalean, taldearen edo bakarlarieen esanguraren arabera kobratzen da, batzuetan esangura hori momentuko moda izan daiteke, hau da, urte horretan fama hartu dutelako, beste kasu batzuetan duten ibilbideagatik izaten da. Hala ere, ohikoa da gizonezkoek esangura gehiago izatea, ondorioz gehiago kobratzen dute.

Bestalde, musika taldeei dagokienez aurrekonturik handiena Nogentaldeak izan zuen. Talde hau, analisi honen arabera misto orekatua da. Hala ere, pasa den urtearekin konparatuta, hobetu egin da, hain zuzen ere, pasa den urteko musika-talde misto maskulinizatua baitzen.

## 6.5 Balorazioa

### Orokorrean

Aurten, **emakume musikarien datua %38** izan da, berez **Jaietarako Udalak duen programatzeko gutxieneko irizpidea gainditu** den arren (%36), **ez da lortu bertan jasotzen den bigarren irizpidea**, hau da, aurreko urteko (2023an %40 izan zen emakumeen parte hartzea) langa gainditzea %50 heldu arte.

Ordea, berritasun oso baikorra gertatu da programazioan, eta 2023ko analisiaren gomendioetan jasota zegoena, **sexu-generoa transgreditu duen talde bat** egon da: djFulana. Bestetik, **emakumez bakarrik osatutako 2 talde programatu dira, aurreko urtean bezala.**

Orokorrean, eta urteen arabera konparazioa eta irakurketa egin ostean, **urtez urteko argazki baten aurrean gaudela esan daiteke.** Hau da, %36ko langaren irizpidea argi dago, baina handik aurrera **irizpideak aplikatzeko zailtasunak daudela** ikusten da<sup>4</sup>.

### Balorazioa Berdintasun adierazle bitartez

Alor hau amaitzeko berdintasun adierazleak erabiliko dira, nolabait modu honetan ikusi ahalko dugu gairen egoera eta modu sinple batean neurtu ere.

#### Programazioan

GUTXI

ERABAT

<sup>4</sup>2023ko txostenean eremu honetarako gomendiok jaso ziren.

Musika programatzean emakumeen ehunekoa igotzeko Udaleko irizpideen tresnaerabiltzen da		
	GUTXI	ERABAT
Tresna horrek dituen helburuak lortu dira		
	GUTXI	ERABAT
Gizon/emakume binomia gainditzen dituzten musikariak programatzea kontutan hartu da		
	GUTXI	ERABAT
Musika programatzeko Udal tresnaren balorazioa egin da		
	GUTXI	ERABAT
Jaietako balorazio bileran musikako datuen berri eman da		
	GUTXI	ERABAT
Musika programatzeko Udal tresna jaietako eragileengatik ezaguna da		
	GUTXI	ERABAT
Aurreko urteko Behatokiko aholkuak kontutan hartzen dira		
	GUTXI	ERABAT

## 6.6 Kirolak

Jarduera honen **analisi**a nagusiki **kuantitatiboa** izan da, egitarauan eta bereziki jaietan kirol-ekintzaren bat antolatu duten **elkarteek betetako fitxan oinarritu gara**. Aipatu dugun fitxa Kirol Arlotik diru-laguntzak jasotzeko “San Joanetako kirol-jardueraren memoria” inprimakia da. Inprimaki hori kirol-jardueraren bat antolatzen duen orok bete behar du ekintzaren diru-laguntza jaso ahal izateko. Beraz, atal honetan kirol-arlotik diru laguntza jaso duten kirol-jarduerak analizatu dira. Hala ere, ezin dira ekintza guztiak analisisian sartu, denek ez dutelako inprimakia bete txosten hau egin den epeetan. Horretaz gain, aipatu behar da, halaber, ekintza batzuetan informazio gehiago dagoela eta beste batzuetan gutxiago.

Jaietan kirol-jarduera asko antolatzen dira, gehienetan kirol-klubek edo elkarteek berek, edo horien laguntzarekin antolatutakoak. Festa egitarauetan kirol-jardunak sartzeak berarekin dakar eremu horretako balioek eta erduek neurri handi batean baldintzatzea festen izaera, eta, bereziki emakumeen parte-hartzea.

Esandakoari eutsiz, kirolaren egungo egitura kontuan hartzen bada, guztiz androzentrikoa dena, zaila izango da festetara sartzen diren kirol-jardunak kutsu hori ez izatea. Festa, bizitzako beste eremu asko bezala, gizentasun “izaera” birsortzeko eta berresteko leku edo modua da. Zalantzarik gabe, jai gehienetan gizonak nabarmenago agertzen dira eta hori lotuta dago genero harremanak ulertzeko erarekin. Egile ezberdinetako hainbat ikerlanek argi uzten dute kirolaren eta gizentasuna birsortzearen arteko erlazioa eta beharra. Hau da, gizentasunaren eredu agintzailea (lehiakortasuna, indarra, abiadura, bortizkeria, indibidualtasuna eta abar) beste gizonei erakusteko, birsortzeko eta berdinen onarpena lortzeko espazioak behar dira, eta kirola horietako bat da.


2024ko San Joanetako programan honako kirol-motak identifikatu dira:

KIROL-MOTA	
Gimnasia emanaldia	erritmikoa
Futbol txapelketak	
Saskibaloia 3x3 txapelketa	
Mendi maratoia	
Tenisa	
Txirrindularitza txapelketa	
Igeriketa torneoa	
Emakumezkoen estropadak	
Padel torneoa	
Eskubaloia txapelketa	
Zesta punta txapelketa	

Zerrenda honetatik, bakarrik Zesta punta, Aretoko futbol, 3x3 saskibaloia, txirrindularitza lasterketa eta eskubaloia txapelketak parte hartu dute analisisian. Esan bezala, azterketa egin den epeetan kirol hauek besterik ez zuten dirulaguntza fitxa bete.

### Partaidetzaren genero analisia

Jaso diren fitxetako informazioan oinarritu ostean, **gizonezkoen kopuru guztira 679 (% 59) izan da eta emakumezkoena 477 (% 41), beraz, doi-doi partaidetza parekidea izan da.**




Fitxa bete duten kirol-zerrendako ekintzak banan-banan hartzen baditugu, azterketan sartu diren 5 kiroleratik 1 bakarrik gizonentzako antolatu zen (txirrindularitza) eta **beste 4ak mistoak izanarren gizonentzako parte hartzea altuagoa izan zen** (Zesta punta, areto-futbola eta 3x3 saskibaloia) **eskubaloia txapelketa infantila izan ezik** (%50-%50). Fitxa bete ez arren aipatu beharra dago, emakumeentzako soilik antolatutako estropada.

2023, 2022, 2019 eta 2018ko datuekin alderatzen badugu, emakumeen parte hartzea igo da; Hala ere, kontuan hartu behar da aurreko bi analisietan kirol gehiago aztertu zirela; beraz, konparaketa ez da egoera berdinetan gertatu.

URTEA	EMAKUMEEN PARTE HARTZEA
2024	%41
2023	%28
2022	%27
2019	%51
2018	%23

### Antolakuntzaren analisia

Ekintzetan parte hartzen dutenez gain, jarduera antolatzen dutenak ere kontuan hartu ditugu. Kasu honetan **antolatzaileen datuak parekideak** dira, % 44 emakume eta % 56 gizon egon dira antolakuntzan. Guztira 140 lagun egon dira kirol-jarduerak antolatzen 62 emakume eta 78 gizon.



**Dirulaguntza jasotzeko fitxan berdintasunaren inguruan hainbat galdera egiten dira**, hala nola, hizkuntza sexistaren inguruan, emakume erreferenteak, esterotipoak hausteko ekintzak, akzio positiboak, etabar baina galdera hauen erantzunak urriak dira. Hala ere, erantzunetan

aktiboenak 3x3 saskibaloia txapelketa eta eskubaloia izan dira. Beraien berdintasunaren ikuskera eta emakumeen parte hartzea eta espazio ez sexistak sortzeko eta bultzatzeko dituzten estrategiak konpartitzen dituzte. Gehienetan begirada eta ekintzak oso lotuta daude ezberdintasunak ekiditzera. 3x3 saskibaloia kasuan, baita ekintza positiboak pentsatzera.

Urte urte **galdera hauek erantzuteko** dauden **zailtasunak** ikusita, jarduerak antolatzen dituzten elkarteekin lanketa egitea beharrezkoa bihurtzen ari da. Baina hori bezain beharrezkoagoa, akaso, ikuspegi integralagoa jasoko duen kirola eta jaiak gaia jorratzea litzateke.

## 6.7 Balorazioa

### Orokorrean

**Kiroletako parte hartzaileen eta antolatzaileen datuak parekideak** izan dira, baina ez dugu ahaztu behar datuen **jasoketa partziala** izan dela, hau da, antolatutako 11 kirol jardueratik bakarrik 5ek erantzun dute dirulaguntza jasotzeko fitxa.

Antolatzen diren jarduera fisikoen **ezaugarri nagusia gizentasunarekin lotuta daudela** da, hau da, gizonen kirol hegemonikoak dira gehien bat, hala nola, futbola, saskibaloia, txirrindularitza, zesta, etabar, horretaz gain, txapelketak edo lasterketa formatua nagusi da, hau da, lehia. Azpimarratu behar da feminizatutako kirola ere programatu dela, urtero bezala, gimnasia erritmikoa, kasu honetan erakustaldia. Neutroagoak bezala izendatu daitezkeen jarduera fisikoak ere antolatu dira, besteak beste, padel edo igeriketa. Nabarmendu behar da aurten **emakumeentzako bakarrik antolatutako estropadak** egon direla. Horrelako ekintzak balio handia izaten dute emakumeentzako erreferenteak sortzen laguntzen dutelako, besteak beste.

Bukatzeko, jaietan kirolak eta jarduera fisikoak bere pisua duen heinean eta horrelako ekintzak antolatzen jarraituko direnez, **gai honi buelta bat ematea komeniko litzateke**, gero eta premia gehiagorekin. Alde batetik, antolatzen diren modalitateei dagokionez eta bestetik helburuei begira.

### Balorazioa Berdintasun adierazle bitartez

Alor hau amaitzeko berdintasun adierazleak erabiliko dira, nolabait modu honetan ikusi ahalko dugu gairen egoera eta modu simple batean neurtu ere.

#### Datuen bilketa

Berdintasuna neurtzeko informazio jasotzea sistematizatuta dago

GUTXI ERABAT

Berdintasuna neurtzeko informazioa jasotzeko tresna garaiz heltzen da azterketa egiteko

GUTXI ERABAT

#### Parte hartzea eta sentsibilizazioa

Parte hartzea orekatzeko neurriak hartu dira jaietan	GUTXI	ERABAT
Emakumeen parte hartzea bultzatzeko neurriak hartu dira jaietan	GUTXI	ERABAT
Emakume kirolariak ikustarazteko ekintzak antolatu dira	GUTXI	ERABAT
Jarduerak antolatzen dituzten eragileei berdintasuna bultzatzeko tresnak edo formazioa eman zaie jaiei begira	GUTXI	ERABAT
Jarduerak antolatzen dituzten eragileei indarkeria matxistan inguruan formazioa eman zaie jaiei begira	GUTXI	ERABAT
Jaietan ze jarduera fisiko mota nahi dugun hausnartu da	GUTXI	ERABAT
Jaietako balorazio bileran kirol datuen berri eman da	GUTXI	ERABAT

## 7. INDARKERIA MATXISTA

### 7.1 Sarrera

Euskal gizartean Indarkeria sexistaren gaia jaietan oso presente egon izan da azken urteetan eta Tolosa ez da gutxiago izan gai honetan. Nolabait, sexu erasoek kasuek egoeraren larritasuna agerian uzten dute, eta erakunde publikoek beraien ardura hartzen joan dira. **Tolosa aitzindaria izan da gai honetan, eta indarkeria sexista testuinguru zabalago batean kokatzeko gaitasuna izan du baita jaietan ere.**

Bi lan-ildo nagusi garatzen dira urtez urte: **sentsibilizazioa eta, eraso kasuetan, erantzuna.** Azken hau protokoloaren bitartez arautu da. Behatokiak ere bi atal hauek aztertu ditu, ondorengo aldagaien bitartez:

### 7.2 Joka sano! Tolosa, ezetz! #LIBRENonahiKanpainak eta Gune Morea

Urtero egiten den bezala, Udaletik Berdintasun Departamentuak zuzentzen eta diseinatzen duen sentsibilizazio kanpaina bultzatu zen.2024. urteko **indarkeria matxistaren kontrako kanpainak** ekintza ezberdinak izan ditu. Hona hemen egin denaren zerrenda:

- #LIBRENonahi kalkomaniak jaietako hainbat eremutan banatu ziren: kuadrilla eguneko bazkarian, eraikin publikoetan (Kultur Etxea, UDATE, Gizarte Zerbitzuak, Musika Eskola, Euskaltegia, Gune Morean...).
- Gazteria Departamentuak antolatuta, urtero bezala, AI LAKET elkarteak gazteekin egiten zuen esku-hartzea prestatu zuen.
- Joka Sano kartela 24 orduko telefonoarekin hainbat lekutan zabaldu zen: herriko panel informatiboetan, taberna eta saltokietan, panel elektronikoetan, Leidorreko bideoan.
- Egitarauko eskuorri handian indarkeria matxistaren aurkako mezuak eta udaltzaingoaren telefonoa jarri ziren
- Hirugarren urtez, tabernariei alkateak sinatutako gutun bat bidali zitzaien, eraso sexista baten aurrean jarraitu beharreko gomendioekin eta aurten Gune Morearen berri emanez.
- Udalak dekalogo bat sortu eta udal webgunean argitaratu du, indarkeria matxista kasuen aurrean jarduteko aholkuekin.

Tolosako Udalak ibilbide luzea du jaietan indarkeria sexistaren kontrako jarrera erakusten eta sentsibilizazio kanpainak abiatzen, San Joan jaietan zein Inauterietan. Eta Tolosak, EZETZ!/Joka Sano kanpaina konpromiso horren erakusle garbia da.



Kanpaina horiez gain, azken urteetan **indarkeria sexistari aurre egiteko beste lanketa-erabatzuk ere sozializatzen ari dira.** Joan den urtarrilean, urtero legez, “**Autodefentsa Feminista**”, antolatu zen Jabetze Eskolaren baitan, Gazteria eta Gazte Topagunerekin elkarlanean, kasu honetan 18-30 urteko neska gazteentzat.

**Autodefentsa feminista**  
(18-30 urteko neska gazteentzat)

Hobeto identifikatu nahi al dituzu, eraso mardotzat? Aurre egiten hasi nahi duzue? Ustez gure burua duzue zure bizitzaren eta kaltetan? Ustez gure burua duzue zure burua defendatzen? Pertsonen burua hori zure burua defendatzen zaitzate?

Sareko hobeak erasotzen dituzten feminista (hazteko) erasotzen dituzte eta erasoak pertsonen burua defendatzen dituzte. Berlin, lehenak eta aurrerak bezalako erasoak landu dira, horietan aurrerak bezalako erasoak erasotzen dituzten erasotzaileekin jasotzen diren erasoak identifikatu ahal da. Helburua, autodefentsa indar eta erasotzen dituzten erasotzaileekin lortzea izango da.

**Femotzaleak:** Erasoak Erasotzen  
**Eguneak:** Martiak 22 (astrebena)  
Ostirala 17:30-20:30  
**Lekuak:** Andragora, Tolosaldea  
Emakumeen Etxea  
**Hizkuntza:** Euskara  
**Matxaketa:** Osoan (guztiz) ezin da eman beldur da



**Gune morea**

San Joanetan, bigarren urtez, **Gune Morea jarri zen**. Gune Moreak arreta zerbitzua eman zuen Andragora Emakumeen Etxearen aurrean jarritako karpa batean. Ekainaren 23an, 24an eta 25an aritu zen gauean zehar. **Pasadan urtean bezain beste egun indarrean egon zen zerbitzua**. Gune Moreak indarkeria matxista jasotzen duten pertsonak artatzea helburua izan arren, sexu heziketa ere lantzeko jomuga zuen. Honen baitan, gehien bat, emakumeen aurkako erasoak artatzera bideratuta egon arren, LGTBIQ+ pertsonen aurkako erasoak ere artatzeko prestatuta zeuden profesionalak zeuden. Nolabait, mota guztietako indarkeria matxistako erasoak artatzeko gaitasuna zegoen.

Gune Moreak **107 eskuhartze** eraman zituen aurrera, hau da 107 pertsona atenditu zituen, gehienak **neska gazteak**. Horietako **inork ez zuen Gune morearen erabilerarik egin indarkeria matxistaren ondorioz**. Atenditutako pertsona guztiak zalantzak edo informazio eske hurbildu ziren. Erabilitako material propio izan da baita udaleko euskarriak ere.

**7.3 Sexu erasoen eta protokoloaren kudeaketa**

2017an “Udal-zerbitzuen betebeharrak” izeneko protokoloa jai testuingurura egokitu zen. Geroztik protokoloa indarrean egon da, eta une oro behar izan duen egokitzapen txikiak egin zaizkio. **Protokoloan udal-zerbitzuen betebeharrak zeintzuk izan behar diren azaltzen da** eta erantzukizun tekniko Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuen artean partekatzen da. Batetik, emakumeari eman beharreko asistentzia festaz kanpoko kasuen berdina izango da. Bigarrenez, egoerari/informazioari eman behar zaion tratamendua azaltzen da. San Joanetan, udaltzaingoak informazio jaso ondoren, alkateari, jaietako eta berdintasuneko zinegotziei gertatutakoaren berri emango diela jasotzen da.

Hirugarren atalak, deialdi publiko-bateratuari egiten dio erreferentzia. Udala eta Mugimendu Feminista eta Tolosako emakume elkarten artean deialdi bateratu bat egingo da. Eta San Joan jaien testuinguruan gertatzen dela kontuan hartuta, jaietako eragile guztiekin koordinazioa mantenduko da: zinegotzi eta teknikariek informazio jasoko dute eta jaietako eragile sozialei helaraziko diete, jaietako teknikariaren laguntzarekin (eskopetariak, kuadrillako ordezkariak, Bordon-dantzariak, musika bandakoak, txosna gunekoak, kiroltako ordezkariak...). Kontzentrazioa eraso gertatu ondorengo 24 ordura egingo da, 19:00tan udaletxe aurrean.

**Berriazko protokolo horren bitartez, eragileen jarduna arautu da:** udal eragile, Mugimendu Feminista eta emakume elkarte eta jaietan parte hartzen duten eragileena. Protokoloa egiteko orduan, Mugimendu Feministako eta emakume elkarteetako kideek ere parte hartu dute, eta

beraz, adostasun zabal batekin egin dela esan daiteke. Berdintasun-teknikariek prozesuaren eta emaitzaren balorazio positiboa egiten dute.

**Protokoloa onartzeak jaietan indarkeria sexistaren gaian balio handiko urrats bat gehiago ematea esan nahi du:** udalak jaietan erantzun koordinatu bat emateko konpromisoa hartzen du, lehentasunezko gaia dela aitortuz. Horregatik, garrantzitsua da protokoloa onartu izanari buruzko komunikazioa ere egitea. Interesgarria litzateke joera hau mantentzea eta hurrengo urteetan ere, gogorapen moduan protokoloaren sozializazioan sakontzen jarraitzea.

**2024ko San Joanetan ez da sexu eraso salaketa egon,** eta beraz, protokoloa ez da aktibatu. Ondorioz, San Joanetan ez dago aurtengo protokoloaren baloraziorik.

Urtero bezala, arloen arteko koordinazio bilera egin da.

Bestalde, Kuadrilla Eguneko antolatzaileekin ere bilera bat egin zen, urtero lez, hala ere, kasu honetan 2023ko Antolatzaileak zirenen hausnarketari erantzun zaie. Hau da, urte horretako kuadrilla eguneko antolatzaileek azpimarratu zutenaren arabera, egoera larri baten aurrean nola erantzun beharko luketen ez zuten jakingo eta irizpide zehatzak izango dituen gida bat eskertuko lukete edo udaltzaingoaren telefonoaz gain, beste zerbitzu baten telefonoa, adibidez Gune Morearena, Kuadrillen Eguneko plazaraino hurbilduko litzatekeena. Beraz, aurten protokoloa azaltzeaz gain eta udalaren telefono-zenbakia emateaz gain, Dekalogoan banatu zaie. Egin denaren inguruko balorazioa jasotzea egokia litzateke, jakin aldera ea baliabide gehiagoren beharre ikusten duten, baita jakiteko eskainitakoa egokia izan zitzaien edo ez.

## 7.4 Balorazioa

### Orokorrean

Aipatu bezala, eraso sexisten esparruan jaietan **udal-politika egonkortuta** dago, **sentsibilizazioaren alorrean bereziki. Arretan ere aurrerapenak** eman ziren eta horien **konsolidazioa** eman dela esan daiteke, Gune Morearen inguruan ari gara. Horretaz gain, jaietan aritzen diren **eragileen formakuntzan eta sentsibilizazioan arakatea garrantzitsua da eta bide honetan pausuak ematen jarraitu behar da**, hala nola, Kuadrilla eguneko eragileekin, ostalariekin edo bestelakoekin.

### Balorazioa Berdintasun adierazleen bitartez

Alor hau amaitzeko berdintasun adierazleak erabiliko dira, nolabait modu honetan ikusi ahalko dugu gairen egoera eta modu sinple batean neurtu ere.

#### Sentsibilizazioa kanpainak eta gaian formakuntza

	GUTXI	ERABAT
Herritar ororentzat Udaletik kanpainabideratzen dira jaietan		
Kanpainen lanketa sistematizatuta dago eta ez da zalantzan jartzen		
Jaietako eragileei urtez urte gaian formatzen zaie		

Arreta: protokoloak eta bestelako zerbitzuak

Jaietara egokitutako indarkeria protokoloa indarrean dago	<table border="1"> <thead> <tr> <th data-bbox="1023 230 1102 259">GUTXI</th> <th data-bbox="1449 230 1546 259">ERABAT</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td colspan="2" style="background-color: #ccccff;"></td> </tr> </tbody> </table>	GUTXI	ERABAT		
GUTXI	ERABAT				
Jaietara egokitutako indarkeria protokoloa eragile feministekin adostuta dago	<table border="1"> <thead> <tr> <th data-bbox="1023 315 1102 344">GUTXI</th> <th data-bbox="1449 315 1546 344">ERABAT</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td colspan="2" style="background-color: #ccccff;"></td> </tr> </tbody> </table>	GUTXI	ERABAT		
GUTXI	ERABAT				
Udalak arreta zerbitzu berezituak jartzen ditu	<table border="1"> <thead> <tr> <th data-bbox="1023 443 1102 472">GUTXI</th> <th data-bbox="1449 443 1546 472">ERABAT</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td colspan="2" style="background-color: #ccccff;"></td> </tr> </tbody> </table>	GUTXI	ERABAT		
GUTXI	ERABAT				
Dauden zerbitzu guztien informazioa eskuragarri dago	<table border="1"> <thead> <tr> <th data-bbox="1023 528 1102 557">GUTXI</th> <th data-bbox="1449 528 1546 557">ERABAT</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td colspan="2" style="background-color: #ccccff;"></td> </tr> </tbody> </table>	GUTXI	ERABAT		
GUTXI	ERABAT				

## 8. BALORAZIO OROKORRA

Atal honetan, txosten honek bildu dituen gaien laburpen bat jasotzen da. Honekin batera, etorkizunari begira jarri eta gaian aurrera jarraitzeko ildo posibleak aipatuko dira.

**Komunikazioari** dagokionez, azkenengo urteetako joera mantentzen da. San Joanen seigarren analisian da hau eta azkenengo 4 urteetan komunikazioan genero ikuspegia sistematizatuta dago, bai iruditegia eta hizkuntza ez sexistaren erabileran baita indarkeria kanpainetan eta jakina denez, udal komunikazioan ere. Hau da, urtez urte, Behatokitik gomendatutako berdintasun irizpideak eta gomendioak txertatzen dira. Aurrera begirako aldarteari eutsiz, momentu honetan onartu dezakegu, komunikazioa tresna garrantzitsua dela ematen ari diren jai feministen aldeko urratsen narratiba sortzen laguntzeko eta sendotzeko. Adibide esanguratsua, aurtengo kartel lehiaketako irabazlea eta honen inguruan egin den komunikazio lanaketa. Bide horretan lanean jarraitu eta horretarako erabilera egin behar da.

Egitarauan, lehenbizi **txupinazoa** dago. 2018. urtetik txupinazoa berdinzalea izateko udal irizpideak indarrean daude eta aurten txupinazoa Pirritxek, emakume pailazo batek, bota du. Irizpideen aplikazioa txupinazoan eragina izan duela ezin da ukatu, hala ere, urtez urte eraginkortasun maila mantentzen dela eta hutsuneei aurre egiteko irizpide berriak integratzen direla bermatu behar da. Honekin batera, eta etorkizunari begira jarrita irizpideak eragileekin eta omenduekin sozializatzea gero eta premiazkoagoa da.

Egitarauaren atalarekin jarraitzeko asmoz, **musikari** helduko diogu. Musika programatzerako unean Udalak dituen berdintasun irizpideak erabiltzen dira, baina argi gelditzen da, urtez urteko konparazioa egin ostean, tresna hau ez dela nahikoa oholta gainean gero eta emakume gehiago ikusteko. Aurten, irizpideetan jasotzen den lez, jaietan programatzen diren musikarien artean %36 emakumezkoak izatearen langa gainditu da (%38 izan da). Baina, tresnan dauden beste irizpideak betetzea edo hurbiltzea urtez urteren arabera dira. Beraz, gai honen ta tresna honen inguruan hausnarketa bat egin behar da duden zailtasunak ongi identifikatzeko eta udalaren esku dauden eskuhartzeak topatzeko.

**Kirolekako** parte hartzaileen eta antolatzaileen datuak parekideak izan dira, baina ez dugu ahaztu behar datuen jasoketa partziala izan dela. Orokorrean, jaietan antolatzen diren kirolak gizontasunari lotuta daude eta gehienetan lehia edo txapelketa formatuan. Kirol feminizatua eta neutroagoak ere antolatu dira, baita emakumeentzako estropadak ere. Geroan begia jarrita, gai honi buelta bat emateko hausnarketa bat egitea interesantea litzateke, hain zuzen ere, kirolek jaietan espazio esanguratsua dutelako.

Adierazi bezala, jaietan **indarkeria matxisten** esparrua udal-politikan egonkortuta dago, sensibilizazio eta koordinazio alorrean bereziki. Arretan, Gune Morea bigarren urtez presente egon da jaietan. Alor honetan pausuak ematen jarraitzea ezinbestekoa da, horregatik jaietako eragile ezberdinen formakuntzan eta sensibilizazioan arakatzea garrantzitsua litzateke, hala nola, Koadrilen eguneko eragileei edo ostalariei.

Dagoeneko, Behatokiak 6 San Joan jaia aztertu ditu (2017, 2018, 2019, 2022, 2023 eta 2024), nolabait, ibilbide egonkortua eta zalantzan jartzen ez dena. Urte guzti hauetan jaietan eman diren aurrera pausuak eta aurrera jarraitzeko gomendioak jaso dira, eta Udal arlo bakoitzak ahal izan duen neurrian berak egin ditu. Bide honetan, hainbat gaietan aurrera pausuak finkatu diren arren, beste arlo batzuetan aurrera pausuak ez dira horren irmoak izan.

Urte guzti hauetan, Behatokia Berdintasun arloaren lidergoan egon bada ere, Udalaren baitan, tarteka elkarlanak edota balorazioak partekatu dira aurrera pausuen izenean; hala nola, Jaiekin, Gizarte zerbitzuekin, Gazteriarekin, Merkataritzarekin edo Kirolarekin. Aurrera begira eta sei urteen ostean, orain arte martxan jarri diren tresnen gaur egungo egokitasuna ikusteko, egin diren lanak eta eskuhartzeak baloratzeko, bere inpaktua ikusteko eta nola ez, etorkizuneko neurriak pentsatzeko eta elkarrekin abiatzeko, berriz ere arloekin hausnarketak, ebaluazioak, diagnostikoak etabar partekatzea komeniko litzateke. Bide batez, lan hau ezin da Udal eremura mugatu eta eragileekin lanean jarraitzea ezinbestekoa izaten jarraitzen du, hala nola, tresnen sozializatorako, eskuhartzeen bideragarritasunak ikusteko edota sentsibilizazioan sakontzeko.

## 9. GEHIGARRIAK

### Musika programatzeko udal irizpideak

Musika taldeen aukeraketa udaletik bideratzen da. 2019tik aurrera **udalak jaietan musika jarduerak aukeratzeko irizpide argiak ditu** eta hola dio:

Oholtzan eta beste jarduera musikaletan emakumeen presentzia handitzeko honako hau proposatzen da:

1. Ezaugarri berdineko bi taldeen artean emakume gehien dituen taldea lehenetsiko da.
2. Kontratatuko diren musikarien artean gutxienez % 36 emakumezkoak izango dira.
  - a. Igotzen den heinean, aurreko urteko gutxieneko ehunekoa (%) hurrengo urteko minimo bezala onartuko da.
  - b. Urtez urte gutxieneko ehunekoa (%) igotzeko ahalegina egingo da % 50era heldu arte.
3. Emakumez barrik osatutako taldeen urteko ehunekoa handitzen joango da.
4. Gaueko kontzertuetan emakumeen presentzia minimoa % 25ekoa izango da eta lehenago erabili diren irizpide berdinak ezarriko dira atal honetarako.

### Musika analisirako erabilitako taula:

SAN JOANAK 2024	MUSIKARIEN SEXU		
	EMAKUMEAK	GIZON	SEXU-GEN TRANSGRES
tolosakoudalmusika banda eta sorotanbele	16	36	
oroimenarenkontzertua, orkestrina band jazpana	1	4	
Andra Mari parrokiakontzertua (loinatz, oroith, hodeiertzabesbatzak)	43	30	
peachyjoke		4	
nogen	2	3	
BatuMorebatukada feminista	27		
et incarnatusorkestra	14	12	
iratzarerromeria	2	4	
mulambo	6	10	
DJ txekor		1	
dudik-p	6		
xiberoots		6	
dj fulana			1
Jainekin, txarangarenkalejira (kuadrileneguna)		10	
udaltxistularien banda		6	

eduardomocoroamusikaeskolakoikasleen banda su txikiagirotzeko	24	32	
musika banda	15	30	
puro relajo		5	
rock kalean		5	
raimundo el canastero		13	
txistularien banda		6	
udalmusika banda diana	15	30	
tolosa eta iruñakotxistularien banda, diana		10	
tolosadultzaineroen banda, diana	1	3	
tolosa eta iruñakotxistularien banda eta udal banda, kontzertua	15	40	
kaleantxaranga	1	9	
muxutruk	2	3	
Joxemendizabaldantzaldia		1	
<b>GUZTIRA</b>	<b>190</b>	<b>313</b>	<b>1</b>
<b>%</b>	<b>38</b>	<b>62</b>	<b>9</b>

## PROIEKTUAREN LIDERGOA



## LAGUNTZAREKIN



## PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA



943 00 35 85

info@farapi.com

Mundaizbidea 10, 23.bulegoa  
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)